

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5487

HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 54/2019 Dekretua, martxoaren 26koa, Gazteriako zuzendaria izendatzeko dena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Goiko paragrafoan adierazitako moduko huts bat atzeman da Gazteriako zuzendaria izendatzen duen martxoaren 26ko 54/2019 Dekretuan (2019ko martxoaren 29ko EHAA, 62. zk.), eta honela zuzentzen da:

1. artikuluan, 2019/1594 (1/1) orrialdean,

honen ordeztu:

«1. artikulua.– Agurtxane Llano Cuadrado andrea Gazteriako zuzendari izendatzea»

hau idatzi behar da:

«1. artikulua.– Agurtzane Llano Cuadrado andrea Gazteriako zuzendari izendatzea».